

LABURPEN EXEKUTIBOA
ORKESTRAKO KOADERNOAK

06/2021

ISSN 2340-7638

NAZIOARTEKO MERKATU HOBIETAKO EUSKAL LIDERREN BERRIKUNTZA ETA PATENTE JARDUERAK

Bart Kamp
Asier Murciego

2021

Orkestraren Koadernoak, 06/2021 zk.

Esker onak:

Egileek eskerrak eman nahi dizkiete Julián de Juani (IP Advisor eta BlackBinderreko Administrazio Kontseiluko kidea) eta Iñigo Urizarri (Handituren sortzailea eta BlackBinderreko Administrazio Kontseiluko kidea) Txosten hau idazteko prozesuan izan duten harremanarengatik eta proposatu dituzten ideiegentik.

Txosten hau Eusko Jaurlaritzako SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziaren laguntzarekin egin da.

Lapurpen Exekutiboa


Motibazioa:

Euskadin ugariak dira nazioarteko merkatu hobietan liderrak diren enpresak (INML deitutakoak). Beren merkatu lidergoari eusteko, enpresa horiek I+G+Bn inbertitu behar dute eta, era berean, jarduera horien ondorio diren berrikuntzak eta asmakuntzak babestu eta sustatu behar dituzte, patenteen eta primiziaz merkaturatzearen bidez. Txosten honetan, EAEko 30 INMLko lagin baten I+G+Bko emaitzak eta patenteen eta primizien bilakaera aztertu ditugu. Horretaz gainera, ikertu dugu enpresa horiek laguntzen ote duten beren merkatuetako estandarrak eta arauak zehazten, beren nazioarteko lehiakortasunari eusteko jarduera osagarri gisa.

Aurkikuntzak:

I+G+Bko gastuari dagokionez, EAEko INMLek herrialdeko eta Europako batezbestekoak nabarmen gainditzen dituzte. Izan ere, fakturazioaren % 4 bideratzen dute I+G+Bra, batez bestean; EAEko eta Europako enpresen multzoa hartuta, ehuneko hori erdira jaisten da. EAEko INMLak ere toki onean daude, merkatuko lehiakideekin alderatuta, merkaturatzen dituzten primiziei begiratzen badiegu. EAEko enpresa horiek nazioarteko beren 3 lehiakide handienak baino % 60 aktiboagoak dira jarduera horretan.

Aitzitik, patenteen eskaerei begiratzen badiegu, ikus dezakegu EAEko INMLen ia hiru laurdenen jarduera nazioarteko beren lehiakide nagusien jardueraren azpitik dagoela. Hurrengo grafikoak erakusten digun bezala – XXI. mendean EAEko INMLek eta haien zuzeneko lehiakide nagusiek eskatu dituzten patenteen kopurua du aztergai, langileen kopuruarekin zatituta–, soilik EAEko lau INML (2, 6, 26 eta 30 kasuak) daude lehiakideen gainetik.



Enpresek merkatuetako estandarrak eta arauak ezartzerakoan duten eragina aztertuta, gure ikerketak erakusten digu gutxienezkoa dela aktiboa esparru horretan, baina INMLen artean geroz eta interes handiagoa du ekarpen horrek.

Ondorioak:

I+G+Bko jarduera behar-beharrezkoa da lehiakorrak izateko eta enpresek merkatuetan duten kokapena eskuratzeko/sendotzeko. Ikuspegi horretatik, jarduera “erasotzailea” dela esan dezakegu. Baina ez da taktika ona izaten eraso bat antolatzea defentsa zaindu gabe. Horregatik, kezagarria izan daiteke aztertu ditugun INMLek patente eskaera gehiago ez aurkeztea.

Are gehiago, gure azterketako INMLen lagina patenteen jardueran nazioarteko lehiakideen atzetik gelditzen dela ikusi dugu, baina, aldi berean, lagin horrek aurkeztu ditu euskal enpresek XXI. mende honetan Europako Patenteen Bulegora eraman dituzten patente eskaeren ia laurdena. Horrek eramaten gaitu ondorioztatzera euskal enpresen patente jarduera oso mugatua dela eta, ziur aski, bere parekoena baino askoz ere apalagoa, maila agregatuan.

Gure ustez, jabetza intelektual eta industrialean oinarritutako defentsa mekanismoak ez erabiltzeko joera hori enpresen lehiakortasuna baldintzatzera irits daiteke. Horregatik, gure azterketaren emaitzak baliagarriak izan daitezke...

- Enpresentzat, beren patente zorroa garatzerakoan, jabetza intelektuala kudeatzerakoan eta estandarrak ezartzerakoan erabaki sendoagoak hartzeko; eta
- Politikak erabakitzen dituztenentzat, enpresak bideratzeko beren asmakuntzak babesteko metodo sendoagoak erabiltzera eta enpresei laguntzeko beren jabetza intelektuala kudeatzeko eta diplomazia korporatiboko estrategiak aurrera eramaten.



Orkestra

LEHIAKORTASUNERAKO
EUSKAL INSTITUTUA
DEUSTO FUNDAZIOA

www.orquestra.deusto.es